

Euskarazetamol

EZ DOK HIRU BIKOTEATROA



Mikel Martinez
Patxo telleria

Patxo Telleriak idatzita
Jokin Oregik zuzenduta

aurrera doan **herria** **art** **peribizua**
ESKO JAIARITZA GOBIERNO VASCO

2009-5-21 (estrenaldia)

1. ONGI ETORRIAREN PAYADA

Patxo eta Mikel publiko artetik agertzen dira. Patxo gitarra batez. Mikel marakekin. Patxok musika bat tarareatzen du, Mikelek publikoari ongietorria ematen dion bitartean. Eskenatokira igotzen dira.

Patxo

Jaun andreak, horra gure asmoa:
Gure kontura zuek barre egitea
Gauza bakarrak axola digu guri
Zuek ordu betez ondo pasatzea
Publikoa dago nere uste apalean
Oso serio ta inkognitaz betea
Espero dugu guztioi zaizuela
Atsegina izango hemen egotea

Mikel

Ez genuke inolaz ere onartuko
Publikoa gau honetan aspertzea
Diruak ez digu axola ez zaigu inporta
Zuek sarrera ordainduta izatea
Gure umorea nola den badakizue:
Inozo, baldar ta ganora gabea
Zin dagizuet ez zaiola inori
Damutuko antzokira etortzea

Mikelek kanta bukatutzat ematen du, baina Patxok berriro kantatzea proposatzen dio.

Patxo

Goazen berriro kantatzera, Mikel.

Mikel

Berriro?

Patxo

Bai, baina oraingoan biok batera, nahasturik.

Mikel

Nahasturik? Baina...

Argudiatzeko astirik eman gabe, Patxo kantatzen hasten da. Mikelek jarraitu beste erremediorik ez du. Kanta nahastuta kantatzen dute, bakoitzak lerro bana kantatuaz.

Biok batera

P. Jaun andreak, horra gure asmoa	M. Ez genuke inolaz ere onartuko
M. Publikoa gau honetan aspertzea	P. Gure kontura zuek barre egitea.
P. Gauza bakarrak axola digu guri	M. Diruak ez digu axola ez zaigu inporta
M. Zuek sarrera ordainduta izatea	P. Zuek ordu betez ondo pasatzea.
P. Publikoa dago nere uste apalean	M. Gure humorea nola den badakizue
M. Inozo, baldar ta ganora gabea	P. Oso serio ta inkognitaz betea
P. Espero dugu guztioi zaizuela	M. Zin dagizuet ez zaiola inori
M. Damutuko antzokira etortzea	P. Atsegina izango hemen egotea.

2. SUPEREUSKALDUNAK

Mikel

Ze ondo jendea hemen ikustea, eta ez kalean mozkortzen edo drogatzen... Badakizu zein den drogaren kontrako antidotorik onena? Euskera.

Patxo

Zergatik?

Mikel

Euskeraz drogatzea oso zaila delako. Taberna batean zaude, lagunekin eta esaten duzu: "Bagoaz komunera marra batzu egitera?"

Patxok poltsikotik errotuladore bat ateratzen du.

Patxo

Guapoki. (...)

Mikel

Eta kolegek errotuladore bat ateratzen dute.

Patxo

Edo kamello bati galdetzen diozu: "Ba duzu tripi-a?"

Mikel

(Tripa potoloa igurtziz) "Bai, alajaina, ederra gainera" (...) Horregatik esaten diot beti semeari parrandan doanean: "Egizu euskeraz!" Euskera sana da, naturala.

Patxo

Gainera, gaur egun ez dago aitzakiarik euskeraz ez jakiteko. Pilulekin.

Mikel

(Zuzenduz) Konplemento bitaminikoekin.

Patxo

Esatebaterako, aditz sintetikoekin flipatu nahi duzula? Sintetifar.

Patxo piula bat hartzera doa baina Mikelek kendu eta berak hartzen du.

Patxo

Ea, Mikel, jarraitu aditza, nor nori, iraganean. Zu niri...

Mikel

(Zitzu bizian) Zinderraizkidan.

Patxo

Honi?

Mikel

Zinderraizkion.

Patxo

Guri?

Mikel

Zinderraizkigun.

Patxo

Haiei?

Mikel

Zinderraizkien!!!

Biok

Alehop!!

Patxo

Emazteak abandonatua nahi zaitu sexu kontuetan hitz gutxikoa zarelako?

Mikel

Soso hutsa!

Patxo

Hartu Sexidifren eta milaka hitz berri asmatuko dituzu.

Mikel aurreratu eta pilula hartzen du.

Patxo

Ea ba... Koittoa egitera ausartzen ez dena?

Mikel

Koitadua.

Patxo

Loa kentzen duen emakumea?

Mikel

Neskafe.

Patxo

Sukaldeko mahai gainean larrua jo?

Mikel

Formikatu.

Patxo

Bular ederrak dituen izekoa?

Mikel

Titia.

Patxo

Lastima ematen duen organu sexuala?

Mikel

Penea.

Patxo

Organu sexual fededunak?

Mikel

Jeovharen Testikuloak.

Biok

Alehop!!

Patxo

Afarietan Mikel Laboaren kantak kantatu nahi? Ez ikasi! Hartu "Laboacepan" eta bere diskografia osoa buruz jakingo duzu.

Mikelek hartzen dio eta eztulka hasiko da.

Patxo

Kontrako bidetik joan zaizu.

Mikel

Xirristi mirristi.

Patxo

Zer diozu?

Mikel

Gerrena plat olio zopa.

Patxo

Ez dut lekeitieraz ulertzen.

Mikel

Kikilisalda urrup.

Patxo

Ala, tori, pilula hau.

Pilula bat ematen dio.

Mikel

Edan edo klip?

Patxo

Perfilmazin, hirugarren perfileko pilula.

Mikelek hartzen du.

Patxo

Hobeto?

Mikel

Bai, zinez ondo nagokizu honenbestez, alegia. Darraigun, darraigun.

Mikel publikoko bati begira geratzen da.

Mikel

Pello?

Mikel

Ah, ez, ez da Pello. (Mutilari) Barkatu... (Patxori) Jarraitu...

Patxo

Zer gertatzen da zure semearekin?

Mikel

Badarama bi egun etxetik agertu gabe.

Patxo

Beno, adin txarrean dago, baina ez da momentua... Neu ere...Mirentxuk etxetik bota nau, eta ez nabil hortik kontatzen...

Mikel

Uste dugu drogekin ari dela.

Patxo

Ez naiz harritzen. Gehiegi mimatu duzu beti.

Haritik urrundu direla konturatzean...

Biak batera

Alehop!!

Patxo

Esaten ari ginenez, pilulak guretzat behar beharrezkoak dira. Guk ezin dugu konformatu euskera estandar batekin. Gure publikoak gehiago exijitzen digu.

Mikel

Ezin dugu eskenatokira igo etxeko edo eskolako euskerarekin.

Patxo

Konplemento bitaminikoak behar ditugu. Antzerki itzulpenak egiteko, adibidez.

3. ANTZERKI ITZULIA

Patxo

Izan ere, euskaldunak ez gara itzultzaile onak.

Mikel.

Asko kostatzen zaigu gure idiosinkrasia bazterrean uztea.

Patxo.

Jarri dezagun adibide bat. Espainiar literaturaren klasiko bat...

Mikelek kapela jantzita dauka.

Patxo

Don Juan!

Mikel

Adibide ona!

Patxo

“¡Por Dios que sois hombre extraño! ¿Cuántos días empleáis en cada mujer que amáis?”

Mikel:

“Partid los días del año
entre las que ahí encontráis.

Uno para enamorarlas,
otro para conseguirlas,
otro para abandonarlas,
dos para sustituirlas
y una hora para olvidarlas.”

Patxo.

Orain entzun dezagun euskerazko bertsoia.

Mikel.

Urreratu, Juantxo, bertsoa botatzera. Zure gaia: “Zenbat denbora behar duzu, neska bat konkistatzeko”, zortziko nagusian.

Patxo:

(Kantatuaz)

Hamar urte gutxi gora behera
neska ederra aurkitzeko
Beste hamar urte duda mudatan
hurbiltzera ausartzeko
hogei gintonik ondo beteta
sexu kontua aipatzeko
Eta bizpairu segundu eskas
ostia eder bat jasotzeko.

Mikel.

Ikusten? Asko kostatzen zaigu idiosinkrasia bazterrean uztea. Jarri dezagun beste adibide bat...

Patxok sudurra jantzita dauka.

Mikel

Zyrano?

Patxo

Adibide ona.

Mikel

Vuestra nariz es enorme

Patxo:

¿Eso es todo?

Puede decirse más en cualquier modo.

Por ejemplo: Agresivo: 'Si en mi cara tuviese tal nariz, me la amputara'.

Amistoso: '¿Podéis beber en un vaso o un embudo precisáis acaso?'

Descriptivo: '¿Es un cabo? ¿Una escollera?'

Mas, ¿qué digo? ¿Es una cordillera!'

Previsor: 'tal nariz es un exceso: buscad a la cabeza contrapeso'.

Lírico: ¿es una concha, un caballo de mar?'

Ingenuo: "El monumento, se puede visitar?"

Militar: a la carga, a mí la infantería.

Práctico: "Habeis pensado en alquilarla algún día?'

Y por fin zafio: vos, mesié, cual elefante

Camináis con el rabo por delante.

Esto y más diríais de mí, compatriota

Si no fuéseis como sois un gran idiota.

Mikel

Orain ikusi dezagun Cyrano Amezketarra. Pasaidazu sudurra.

Mikelek sudurra jarri nahi du baina ez zaio sartzen.

Mikel

Ze arraiio gertatzen da, sudurra txarto egin dago, ala? Ea, pikutara!

Sudurra botatzen du. Patxo barre egiten du.

Mikel

Zer gertatzen da?

Patxo

Zure sudurra... oso handia dela.

Cyrano

Horra egia.

Baina gehiago esan daiteke, alegia:

Abertzalea: "Sudur tzar horrek, eminentzia laster eskatuko dizu independentzia."

Sozialista: "Sudur benetan petrala

Ezpainari egiten dio itzala."

Popularra: "A ze bikote ederra, a ze pareja

Nariz Enorme eta Mayor Oreja"

Funtzionarioa: "Pituitaria horrek badu bentaja

konstipatu ezkeru urtebete baja.”
Euskaltzaina: “Sudur horrekin lasai, mutila,
poltsikoan daukazu hirugarren perfila”
Okupa: “Sudur totala, motel, aupa tu!
Gaztetxea egiteko behar dut okupatu!
Bilbotarra: “Sudur hori, handia dala?
Handiagoa, San Mames Katedrala.”
Errealekoa: “Sekula inbidia halakua
sudur hori bai, lehen mailakua.”
Inozoa: “Pagotsa ederra duzu, zu zara suerteko,
bi kirten dituzu txortan egiteko”
Zirikatzailea: “Orain esan duzu, pitokeria ederra
goikoa handia bada, behekoa txikerra.”
Aita kezkatua: “Esan semea, nahi dut jakin:
Zer esnifitzen duzu sudur horrekin?
Laburbilduz: Araban sudurra
gizpuzkun sudurre
ziberun sudugga
bizkaian sudurrie
baita ere pinotxa ta porrie.
Hau guztia esango zenuke, jakina
Ni bezain euskaldun jatorra bazina.

Patxo

Ikusten? Asko kostatzen zaigu gure idiosinkrasia bazterrean uztea.

Mikel

Gauza bat, zergatik aukeratu duzu Zyranorena?

Patxo

Bururatu egin zait, besterik gabe. (...) Nik honekin zera adierazi nahi nuen, euskaldunak oso itzultzaile txarrak garela.

4. ITZULIMIZINA

Patxo

Baina hori ez da arazo Itzulimizina hartuz gero! (Fraskoa erakusten du)

Mikel.

Egin dezagun erakustaldi bat. (Pilula bat hartzera doa)

Patxo.

Ez, Mikel, zuk ezin duzu itzulimizina hartu!

Mikel

Zergatik ez?

Patxo.

Kalte egiten dizulako!

Mikel

Kalte niri?

Patxo

Burua nahasten zaizu! Tontakeriak esaten hasten zara!

Mikel.

Bale, oso ondo, ba hemen sobran banago, ni banoa.

Mikel badoa.

Patxo

Ondo da, hartu zazu, baina pixka bat bakarrik. Ea zer ateratzen den...

Mikel

Bale.

Mikelek itzulimizina hartzen du. Efektu nabarmena egiten dio. Patxo kezkatuta agertzen da Mikelen balizko erreakzioaz.

Patxo.

Pilula hau oso egokia da bapateko itzulpenak egiteko. Ikusi...

Patxok mikrofonoa hartzen du eta Mikelek kaskoak ipintzen ditu.

Patxo

Frogatzen, frogatzen... Ondo entzuten didazu?

Mikel

¿Me oyes bien?

Patxo

Ez, ez, ia ondo entzuten didazun, Mikel.

Mikel

No, no, a ver si me oyes bien, Mikel... Miguel.

Patxo

Bueno, ahaztu.

Mikel

Beno, egin zuk.

Patxo

¿?

Mikel

Haz tú: egin zuk.

Patxo

Manda huevos.

Mikel

Bidali arraultzak.

Patxo

Ala jainkoa!

Mikel

O con Dios o con Alá.

Patxo

No hay tu tía.

Mikel

Ez dago zure izeko.

Patxo

Hau da hau.

Mikel

Hau da hau. (Esta es esta). Hau da... es esta, ez, es-esta-tu!. (No lo niegues). Esta es, es esta, ez, ez ezta, está tuto. Ez ezeztatu estatutoa! (No lo niegues, no está tuto). Ez ezeztatu: no lo niegues; estatutoa: no está tuto. Ez, está tuto, no falta nada. Nada el estatuto? Igeri egiten du, Hi Geri-cuper?. Ez, Hi Geri, Gu ggenheim?, Nada Geri?, Igeri Geri? No, no, no; nada, nada, nada. No nada nada de nada. Hau da hau. Ez ezeztatu estatutoa. (No lo niegues, no está tuto). Estatuto... transferito? NO, Tuto tuto no. Transferentzia ezeztatuta. Es-esta-tu... transferentzia, diputatu? Dí-puta-tú. (Esan-emagaldua-zuk). Ez! Ez ezeztatu estatutoa, (no lo niegues, no está tuto). Tu to yo ta nago jo-di-tu-ta nago, claro, sin el estatuto. No, hau da hau, ezta? Ez, es esta-tuto. Hau da hau: esto es tuto. (...) No sé si no me he liado un poco.

5. EUSKALTZAINDIA ETA “G”

Mikel

Hau buruko mina! Euskara guztia nahastuta daukat.

Mikelek pilula bat hartzen du.

Mikel

Hau hartuko dut ea akklaritzen naizen.

Mikel

Zer da hori?

Mikel

Euskaltzaindiaren Azken Arauak. Nahi duzu?

Patxo

Ez, bihotzerrea ematen dit.

Mikelek pilula hartu du. Erreakzio nabarmena reagiten dio. Patxok, kezkatuta, fraskoa kentzen dio.

Patxo

Gainera, nire ustez ez da pilulekin abusatu behar.

Mikel

Nik kontrolatzen dut. Nik hau nahi dudanean uzten dut.

Patxo

Dena den, Euskaltzaindiaren arauak jarraitzeko ez da pilularik behar. Gehiegi kejaratzen gara Euskaltzaindiari buruz.

Mikel.

Arrazoi duzu.

Patxo

Eta injustoak gara. Esatebaterako, Euskaltzaindiaren arabera, Grekeratik datozen hitzetan, “g” letra ez da “je” ahozkatu behar, baizik eta “ge”. Esatebaterako: “Jeokimika” ez, “Geokimika” baizik. Ez da hain konplikatua, koño!

Mikel

Borondate on pixka batekin...

Patxo

Baina jendea berehala hasten da protestaka eta kexaka. Kagoenlamar, ez du hainbeste kostatzen: “Jeodinamika”: ba “Geodinamika”.

Mikel

“Jinekolojia”: ba “Ginekologia”.

Patxo

Hainbeste eskatzea da? Oso hitz gutxi dira, gainera, neologismo bakan batzu.

Mikel

Neologismo.

Patxo

Eh?

Mikel

“Neolojismo” esan duzu, eta “neologismo” esan behar da.

Patxo

Ah... Ez naiz konturatu. Baina “neologismo” esan dezaket inolako arazorik gabe. Jeneralean ondo esaten dut.

Mikel

“Generalean”.

Patxo

(Barrez) Ai! Egia, generalean ondo esaten dut. Eta jendeak?

Mikel

Buah!!

Patxo

Jendeak tragedia bat egiten du.

Mikel

Tragedia.

Patxo

Tragedia, bai! Bai hori, ez dela hain konplikatua. Lojika pixka bat eta...

Mikel

Logika.

Patxo

Logika, bai, koño!

Mikel

Ez zaitez haserretu.

Patxo

Ez naiz haserretzen!! Oso jenio bizikoa naizela, besterik ez.

Mikel

Genio!

Patxo

(Erreta) Genio... Hori da... Gauza jenetikoa da.

Mikel

Genetikoa.

Patxo sututzen hasia da.

Mikel

Oso erreza da, Patxo: Greziar jatorria duten hitzak dira kontrolatu behar direnak.

Patxo

Bost ajola, Grezia edo Ejipto! Esaten ari nintzen...

Mikel

Egipto.

Patxo

Egipto!! Eta ez moztu!! Ez joan tanjentetik!!

Mikel

Tangentetik.

Patxo

Ahhhh!!!

Mikel

Eta ez ohiurik egin, bestela laringitis bat harrapatuko duzu. Edo Anginak. Ea, egin gimnasia, hartu airearen oxigenoa eta nitrogenoa. Ni ere lehen asko agitatzen nintzen, sagitarioa naiz badakizu, eta kriston lumbalgiak nituen eta oso digestio txarrak, baina estrategia aldatu nuen: begetariano egin nintzen. Erregimenean hasi eta aizu, magia!, magia potagia! Gorputza zaindu behar da, bai, ze generalean oso degeneratuta gaude. Batez ere gazteak eta euren liturgia tragikomikoa: tabernan sartu eta ala! Orgia! Drogak eta gintonik gora-gintonik behera, ginebra askorekin gainera! Psikologia pixka bat, koño! Zer gara ba, ohianeko indigenak? Zoologikoko animaliak? Mesedez, teknologia digitalaren gaiaran gaude! Ez da logikoa, ez da legitimoa...

Mikel monologoan ari den bitartean, Patxo fraskoko pilulak zakarrontzira botako ditu.

Patxo

¡¡¡Ez ikutu potroak!!

Mikel

Genitalak.

Patxo

(Harnasa hartzen du) Itxoin pixka baten.

Patxo badoa eskenatik.

Patxo (off)

¡¡¡Me cago en Euskaltzaindia!!!

Mikel

Gilipollas!!

6. ONOMATOPEIAK

*Patxo bueltatzen da. Mikel-ek Euskaltzaindiaren beste fraskoa eskeintzen dio.
Patxok osorik hartzen du. Oso erreakzio gogorra eragiten dio.*

Mikel

Euskaltzaindiari buruz ari garela, lehengoan astokeri bat entzun nuen irratiko tertulia batean euskarari buruz.

Irratia (off)

“...el euskera es una lengua arcaica y cavernaria. Una lengua que se basa en el uso de las onomatopeyas, es una lengua que se encuentra en un estadio primirivo.”

Patxo.

Tertuliano txit estimagarria. Onomatopeia asko euskeraz? Ze tontakeria da hori? Ze burruna, ze zalaparta, ze mar mar? Ze zabiltz ujuka, ufaka, patarraka? Zurrut egin duzu tertuliano, drungun drungun? Gezurretan zabilta, purrustaka, txorrotxioka. Kalumniaren putzuan jausi zara, plaust, laprast egin duzu, irrist, ta han zaude plisti plastaka, zaunkaka, tontakeriak esaten bar bar, garrangaka, karkaraka, firin faran. Onomatopeiak! Hizkuntz arkaikoa! Aizu, txist, eh? Ze berotzen hasi naiz, pil pilean nago, bor borka, begiak ditut dir dir, eskuak dar dar, bihotza taupa taupa... Emango nizuke jata dida dunmba, zartako bat arrapataka, blist eta blast, sits eta bits, zirti zarta, dedio. Entzun duzu, kurrin, kokoriko, bekereke?

7. APELLIDUERAZ

Mikel moskeatuta dago ikusle batekin.

Mikel

Pello? Barkatu baina...

Patxo

Ez, ez da Pello. (Ikusleari) Barkaiozu. Semearekin obsesionatuta dago. Adin bereko mutil gazte bat ikusi orduko, bera dela pensatzen du.

Mikel

Oso kezkatuta gaude etxean.

Patxo

Ba aguantatu, ni bezela. Mirentxuk abandonatu nau eta ez naiz ibiltzen hortik kontatzen.

Mikel

Non egongo ote da? Drogatzen seguru. Joera hori izan du beti. Eskolan Plastika gustatzen zitzaion gehien. Pegamentoagatik, jakina!... Gero mendira joaten hasi zen. Mendira! Ja! Kriston zimaur usaina hartzen nion nik bueltan. Seguro mangi edo mongui edo minga horiek hartzen zituela. Baina errua gizartearena da. Gizarte honetan drogak daude edonon.... (*hasten da poltsikoak arakutzen, pilulen bila*)

Patxo

(Publikoari begira) Kontxo... Mirentxu?? (...) Ah, ez, ez da. Inozoa ni, nola etorriko zen ba ni ikustera? Ni ez naiz inor berarentzat. Badakizue? Etxean hiru ginen, Mirentxu, ni eta txoritxo bat. Eta ni nintzen etxeko hirugarrena!!

Mikel dardarka. Zabor poltsan ari da eskua sartzen.

Patxo

Mikel?

Mikelek eskua ateratzen du zakarrontzitik.

Patxo

Zer ari zara zaborrean miatzen?

Mikel

Ez, ezer ez... Ez zaidala pilularik geratzen.

Patxo

Zertarako behar duzu?

Mikel

Eh? Oh... Ezertarako ez.

Patxo

Orduan?

Mikel

Pasaidazu bat.

Patxo

Zertarako?

Mikel

Euskeraz egiteko!! Pasaidazu!!

Patxo

Pilularik gabe ere euskeraz egin dezakezu!

Mikel

(Patxori txaketatik helduz) Bai, baina euskaldun arrunta naiz, eta nik euskaldun profesionala izan nahi dut! Supereuskalduna!!! Eta horretarako pilulak behar zaizkit...! Ez, dituzte...! Ez... Jode, lo ves? Se me ha olvidado hablar euskera. Dame una pastilla!! Give me one.

Patxo

Lasai, Mikel!!

Mikel

¿Qué dices? No te entiendo, háblame en cristiano.

Patxo

Venga, tranquilo. Repasa tus apellidos.

Mikel

Martínez, López, Fernández, Gutierrez...

Patxo

No tienes apellidos vascos?

Mikel

Tengo un Etxarri, pero perdido en la oscura noche de los tiempos de mi árbol genealógico.

Patxo

Anda, tómate un Apellidomicina...

Mikelek lurreko pilula bat jaten du eta lasaitzen da.

Patxo

Hau ez zen gertatuko abizen euskaldunak izango balitu. Ze euskaraz jakin gabe ere euskaraz egin daiteke, baldin eta zure lehenengo berrehun abizenak euskaldunak badira. Hona hemen adibide bat. Gure hurrengo konbidatua politikaria da eta hauteskunde kanpainan parte hartzen ari da. Datorrela Mikel Endika Agirre Etxezarreta eta abar eta abar Jauna.

Mikel

Apa olaza! Apa lategi! Ola be!

Patxo.

Arratsaldeon, hautagai jauna.

Mikel

Ola sagasti.

Patxo

Eseri... Ondo zaude?

Mikelek Patxoren aulkia jeisten du, altuago egoteko.

Mikel.

Garai. Altube. Elorriaga! Elorrieta!

Patxo

Hasi gaitezen ba. Zure euskera...

Mikel.

¿...?

Patxo.

Pixka bat gorra zorra zaude, ez?

Mikel

Tapia.

Patxo

Orain ondo entzuten didazu?

Mikel

Iriondo.

Patxo

Esaten ari nintzen zure euskera bitxi xamarra dela. Ze eskoletara joan zara zu euskera ikastera?

Mikel

Amuchastegi.

Patxo

AEK-ra?

Mikel

Etxano.

Patxo

Esaidazu, zergatik joan nahi duzu Parlamentura?

Mikel

Lekuona.

Patxo

Zer egingo duzu han?

Mikel

Aldana.

Patxo

Hori ez da oso zehatza.

Mikel

Aldanondo.

Patxo.

Hau da, ezer gutxi...

Mikek.

An gu lo.

Patxo

Baina norbaitek lan egin beharko du, administrazioa aurrera ateratzeko.

Mikel.

Irasola.

Patxo.

Hautatua suertatzen bazara, zer da egingo duzun lehen gestioa?

Mikel

Maguna Etxebarria.

Patxo

Baina etxe bat egiten ari zara orain.

Mikel

Lakabé.

Patxo

Aha... Eta etxe berria ondo geratzen ari zaizu?

Mikel

Basabé.

Patxo

Eta etxe berria egindakoa?

Mikel

Etxebeste.

Patxo.

Eta kazetariren batek esaten badu zure jarduera susmagarria dela?

Mikel

Pagola.

Patxo.

Prensa erosten dela insinuatzen ari zara?

Mikel

Zalduondo.

Patxo

Hitz egin dezagun oposizioko hautagaiari buruz.

Mikel

Aburto. Bordegarai.

Patxo

Gauza bera esaten du berak zutaz.

Mikel

(Eskua aurpegira eramanez) Querejeta!

Patxo

Haserretu egiten zaitu?

Mikel

(Haserre) Amorrortu! Larreche!

Patxo

Errez sumintzen zara.

Mikel

Egia. Errazkin.

Patxo

Hainbeste?

Mikel

Imáz!

Patxo

Beste hautagaiaz hitz egiten jarraituko dugu?

Mikel.

Korta, korta!

Patxo

Ondo da. Gobernua osatzen baduzue, nolakoa izango da zuen gestioa?

Mikel

Opakua.

Patxo.

Eta hiritarrendik urrun?

Mikel.

Oribe.

Patxo.

Antimilitarista omen zara.

Mikel

Otano.

Patxo.

Baina fundamentalismoa borrokatu behar dela ere esaten duzu.

Mikel.

Alano.

Patxo

Eta Afganistanen tropak mantentzearen alde zaudela esan duzu inoiz.

Mikel

Maiz.

Patxo

Otanen alde, otanen kontra. Denak kontent utzi nahi dituzu? Zure jarrera ez al da...

Mikel

Seguroa.

Patxo.

Ulertzen dut. Ze eritzi du zure partidoak euskal Y grekoari buruz?

Mikel.

Aldekoa.

Patxo

Eta Y grekoaren ostean, zer?

Mikel

Haranzeta.

Patxo

Zer egin behar da Gobernuaren aurrekontuarekin?

Mikel

Sagasta.

Patxo

Bai, baina nola? Programa politikorik ez duzula esaten dute askok.

Mikel

Gusurmendi!

Patxo

Orduan, non daude zure proposamen politikoak?

Mikel

Ayestarán.

Patxo

Baina programa politiko bat edukiko duzu.

Mikel

Antza.

Patxo

Nolakoa da?

Mikel

Baiona.

Patxo.

Eta hiritarren gustokoa ez bada?

Mikel.

Lukanbio.

Patxo

Imajinatu lehendakari izendatzen zaituztela eta kontseilariak zuk aukeratu behar dituzula. Nor jarriko zenuke Etxegintzan?

Mikel

Aurtenetxe.

Patxo

Ekonomian?

Mikel

Gaztanbide.

Patxo

Haziendan?

Mikel

Latasa.

Patxo

Kanpo-arazoetan?

Mikel

Urruti.

Patxo

Barne ministroerian?

Mikel

Egurrola.

Patxo

Penitentziarian?

Mikel

Berasaotegi.

Patxo

Justizian?

Mikel

Balantzategi.

Patxo

Kulturan?

Mikel

Arteaga.

Patxo

Kirolean?

Mikel

Azkarate.

Patxo

Ingurugiroan?

Mikel

Eskoriatza.

Patxo

Beno, Mikel Endika Agirre Etxezarreta eta abar eta abar jauna... Zure abizen ia guztiak esan dituzu. Bakarra falta zaizula uste dut. Azkeneko galderatxoa, beraz. Esaidazu... Zein da, politikari bezela daukazun ametsa?

Mikel

Aberasturi.

Patxo

Gabon eta milesker!

8. KANTAPLASTA EKOLOJISTA

Patxo

Ikusten? Pilulak ez dira beharrezkoak. Pilulak bakarrik hartu behar dira beharrezkoak direnean.

Patxok pilula bat hartzen du. Efektu berezia egiten dio.

Mikel

Zer pilula da hori?

Patxo

Kantaginseng.

Mikel

Jaun andreak, Patxok Kantaginseng bat hartu du, laurogeiko hamarkadako musikaren pilula. Musika protestaren garaiak, gitarra eta kantautorearen garaiak... Hitz batean: txapaforumen garaiak.

Patxo garaiko kantautorez jantzita agertzen da. Gitarra eskuan. Mikel publiko artera doa, mikrofonoa eskuan duela.

Patxo

Gabon. Antolatzaileek kontzertu laburra egiteko eskatu didate, beraz, lau ordu besterik ez daukagu.

Mikel

Ez!! Demagun kontzertua bukatu dela!! Goazen txapa-forumera zuzenean.

Mikelek mikrofonoa "pasatzen" dio hitza eskatzen duenari.

Bai, nik... Kaixo. Oso gustora egon naiz kontzertuan ondokoak esnatu nauen arte... Esan, nola definitzen zara, kantautore edo musikari?

Patxo

Kanta-plasta. Kanta-plasta ekolojista.

Mikel

Zergatik...?

Patxo

...kantaplasta?

Mikel

Ekolojista.

Patxo

Ah. Nire ustez musika gehiegi egiten da. Nik kankak birziklatu egiten ditut.

Mikel

Zelan bururatu zitzaizun?

Patxo

Bueno, meritua nire emaztearena da. Emazte ohia esan nahi dut. Compañera ohia obeto esanda. Orain etxean ohia hutsik daukat... Se me ha ido la olla... Ah! Mirentxuri buruz ari nintzen. Zoriontsuak ginen. Baina egun batean berak txoritxo bat erosi zuen, eta aizu... Txoriarentzat baino ez zuen begirik. Azkenean etxetik bota ninduten. Orduan kantu hau birziklatu nuen:

“Txoria ni baino gehiago

maite zuen neriak
maite zuen neriak (Bis)
Ez zen horrela izango
hegoak ebaki banizkio

Eta nik (eta niiiik) ez nuen alde egingo (bis) “

Mikelek bitartean beste toki batera joan da. Eskua altzatzen du eta mikroa jastotzen du.

Mikel

Kaixo, nik ez dut ondo ulertu odolaren metafora hori. Zer esan nahi duzu, odola eman behar dugu aberriaren alde?

Patxo

Ez da metafora. Kantu hau Euskadiko odol emaileen elkarteak eskatu zidan, jendea odola ematera animatzeko:

Entzun danok, gudariak:
Gerturik daukagu
odola emateko alde bat
mendi tontorrean...

Mikel

Baina irrintzia?

Patxo

Irrintzia ez, inyekezioa.

Patxok xiringa besoan sartzea mimatzen du, irrintzi bezalako minezko ohiua egiten duelarik.

Patxo

Galdera gehiago?

Mikel beste alde batera joan da.

Mikel

Kaixo, Xirularen kantu horretan, preserbatiboaren alde agertzen zara, ezta?

Patxo

Bai, baina zeharka, zentsura sahiesteko. Nik purgazioen purgatorioa deskribatzen dut.

Xirularen puntan
Puntaren puntan
Adarra zegoen liruli
Adarra liruli Xirula lirula
Nork sendatuko ote du
Xirula hori?

Mikel

Hortaz ari garela, zure kantagintzan ez duzu inoiz sexuaren gaia ateratzen.

Patxo

Nola ez, lehenengo singelean:

“Beti penetan, beti peneetan
bizi naiz mundu honetan”.

Mikelek eskua altzatzen du beste toki batetik.

Mikel

Beno, nik salatu nahi dut zure jarrera matxista faliko eta errebisionista. Osea, de qué vas, zerezkoa zoaz? Gaur egun denok dakigunean emakumeen sexualitatea klitorianoa dela...

Mikelek mikroa kentzen dio.

Mikel

Eskerrik asko, eskerrik asko, baina bukatu behar dugu. Txapaforum interesgarria izan da, beroa, betiko moduan... Baina bukatu behar dugu, hamar minutu barru manifa daukagu...

Patxo

Barkatu, ez dugu nire azken diskaz hitzegin.

Mikel

Ah, diska berria atera duzu? (...) Beste bat!?!? (...) Beno... Nahi baduzu, zerbait kantatu...

Patxo

Bale!! Bigarren aldeko kanta: “Seme galduaren Balada”

Oh pello pello

Rimbaud etorri duk hitaz galdezka gu ere hire zain geundela esan zioagu
ez hintzela aspaldi azaldu etxetik

Non hago?

Zuretzat berdin dira asteak eta jaiak.

Nik ere nahi nuke izan urtxintxa bezala

Mundua ez da beti jai, inoiz tristea ere bai.

Nora zoaz, euskal semea?

Hemendik aurrera Mikelek bere komentarioak egingo ditu, kanten artean.

Mikel

Egun santu guztian...

Patxo

Kalian gora kalia behera kalia gora kalia behera.

Mikel

Batek daki norekin.

Patxo

Eta norekin, eta zeinekin?

Mikel

Lagun txarrekin, seguru.

Patxo

Zure kuadrillan zure kuadrillan
zure kuadrillan mozkorra franko eta gainera soltero.

Mikel

Esatebaterako, non ibili zinen atzo?

Patxo

Bart, bart, bart, bart parrandan ibili, bart parrandan ibili;

Mikel

Bai, baina non?

Patxo

Edozein herriko jaixetan.

Mikel

Eta seguro drogak hartu zenituela!

Patxo

Alegratzeko triste dagoen guztia.

Mikel

Zenbat pilula?

Patxo

Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili ez naiz ondo ibili;

Mikel

Bi? Jainko maitea!

Patxo

Hiru, hiru, hiru, kolkoa bete diru, kolkoa bete diru;

Mikel

Errua nirea, dirua emateagatik,

Patxo

Lau, lau, lau, sardina bakalau.

Mikel

Lau? Engantxuta zaude!

Patxo

Ez da posible, ezin liteke!!

Mikel

Seguro zaude?

Patxo

Egia da, egia da.

Mikel

Jakina, mundu guztiak hartzen ditu eta...

Patxo

Zuuuuk zergatik ez?

Mikel

Ez, Pello, drogarik eskeintzen badizute zuk esan...

Patxo

Ez ez dut nahi ez ez ez...

Mikel

Hori da, Baina ez, zuk beti...

Patxo

Eta baaaaai, ata baaaaaiiii...

Mikel

Eta gero, biharamunean...

Patxo

Astelehena, jai ondoren alferra...

Mikel

Jakina, asteburu osoan jijiji jajaja, benga!

Patxo

Haika mutil, jeiki hadi argia den mira hadi...

Mikel

Bah, alferrik, ez da altzatuko. Ez dakit noren antza duen, ze ni...

Patxo

Jeikitzen naiz egunero oilarrak jo eta gero.

Mikel

Hamazortzi urte nuenetik, antzerkia egiteko, zuzendari jaunak agintzen zidana txintxo txintxo egiten beti.

Patxo

Irun ezak eta

Mikel

Irun diat eta.

Patxo

Astalka zak eta

Mikel

Astalka diat eta.

Patxo

Harilka zak eta.

Mikel

Harilka diat eta.

Patxo

Xuri ezak eta.

Mikel

Xuri diat eta.

Patxo

Irazki ezak eta

Mikel

Irazki diat eta.

Patxo

Pika ezak eta

Mikel

Pika diat eta.

Patxo

Josi ezak eta

Mikel

Nahikoa da, ostia!! (...) Ez, bromatan esan dut, nik zuzendariari sekula ez diot abotsik altzatu, zin dagizut.

Patxo

...ez dizudala inoiz gezurrik esan eta.

Mikel

Langile prestua naiz... Beno, bale, gaztetan...

Patxo

Izan gira euskal herrin rock & rollin

Mikel

Baina festa sanoak ziren, drogarik gabe, alkoholik gabe. Errefresko bat eta kito.

Patxo

Kerrika Kokakooooola. Da refreskantia

Mikel

Beno, ardotxo bat edo beste ere bai...

Patxo

Ardoa edanda mozkortzen naiz, porro erreta zoratzen naiz

Mikel

Bale, porroren bat ere inoiz, baina gutxi, zenbat?...

Patxo

...lau, bat, hiru, bost zazpi...

Mikel

Asko jota! Eta porroa bakarrik, koka eta kaka horiek probatu ere ez... Agian behin...

Patxo

Sarri sarri sarri sarri sarri sarri...

Mikel

Ondo da. Ni ere gaztea izan naiz eta badakizu...

Patxo

Gazte gera gazte eta ez gaude konforme.

Mikel

Bla bla eta bla bla... Baina hori pasatzen da. Orain...

Patxo

Bizkaiko aberatsak dira diruzale,
txerri-erosle eta txorizo-saltzaile..

Mikel

Hori da zuk jarraitu behar duzun ejenplua. Bestela...

Patxo

Negar egingo luke zure amak baleki.

Mikel

Badaki drogatzen zarela, ez du ba jakingo! Baina semea...

Patxo

Zergatik zergatik zergatik

Mikel

Zergatiiiiiiik? Baina guk...

Patxo

Zer egin dugu?

Mikel

Ez dugu ezer egin tratu hau merezitzeko.

Patxo

Zer egiten dugu?

Mikel

Ezer ez. Ez zaitugu inoiz kaztigatzen.

Patxo

Zer egingo dugu?

Mikel

Tira, bueltatzen bazara, Play Station berria erosiko dizugu, eta zure gelarako telebista, eta antena parabolikoa, eta mobil berria, eta mp3 eta mp4 eta I-poda, zuk nahi duzuna, baina bueltatu, ze nik..

Biok

Maite zaitut, maite maite zaitut,

maite zaitut pila patata tortila.

Maite zaitut, maite maite zaitut,

maite zaitut pila patata tortila

9. E-REKIN

Mikel “negarrez” geratu da.

Patxo

Ea, ba... Mikel, lasai. Ea, hartu zazu pilula bat pixka bat flipatzeko.

Mikel

Bale... (...) Ez!!

Patxo

Zergatik ez?

Mikel

Nire semearentzat eredu ona izan nahi dut. Tira, bukatu dira pilulak.

Patxo

Baina hau ez da droga, Mikel.

Mikel

Bueh! Ez... eta bai. Ez, ez... Nik garbi egon nahi dut.

Patxo

Oso ondo iruditzen zait.

Patxok pilula bat hartu du.

Mikel

Zer hartu duzu?

Patxo

Alfabeticina. Alfabetoarekin jolasteko pilula.

Mikel

Jode, kasualitatea! Pilularik flipanteena. Emaidazu!

Patxo

Pentsatu zure semearekin!

Mikel

Pentsatzen ari naiz, hain zuzen ere! Pilula horrekin gauza harrigarriak egin daitezke. Nire semea nitaz harro sentitzea nahi dut!

Patxo

Nik ere nahi dut Mirentxu nitaz harro sentitzea!

Mikel

Zureak ez du erremediorik! Mirentxuk abandonatu zaitu! Betirako! Sartu hori buruan!

Patxo

Txori madarikatua!

Mikel

Ea, emaidazu pilula hori.

Patxo

Ez, Mikel, zure onerako ari naiz. Nik egingo dut. E-rekin.

Mikel

Ez!! Prestatuta daukazu.

Patxo

Bale. Aukeratu bokal bat: a, e, i, o edo u.

Mikel

Eh?

Patxo

Bale, E. Banoa.

Mikel

Eh!

Patxo

Baietz, ba, E. Itxoin, gaia pentsatuko dut: gai konplikatu bat: Badakit! Orreagako Gatazkaren kantua!

Mikel

Ez!! Hori ere prestatuta daukazu. Nik jarriko dizut gaia. Ea ba... utzidazu pentsatzen... Aita bat... Aita bat, seme adoleszente bat daukana... Paboaren garaian, badakizu, eta eskutik joaten ari zaiola susmatzen du. Ea...

Patxo egitera doa.

Mikel

Itxoin!! Bertsoz egin beharko duzu.

Patxo

Nola?

Mikel

Bertsoz!! Ez al da hain flipantea pilula hori? Kantatu e-rekin nik kantatuko dudana.

Nere ezpaleko seme maitea,
ez ote zabiltz tontatzen?
Etxe honetan bizi izan zara,
kapritxo denak kunplitzen.
ta bapatean ozpindu zara,
ezergatik asaldatzen
Bildotsa arrano bihurtu zaigu
Dena duzu konplikatzen

Ea... Zure txanda.

Patxo

Ene seme nere genen semen
Zer dek tenteltzen mesedez?
Hemen bederen, etxen errege
Berebereen jeke lez
Derrepente dek errebeldetzen
Zekentzen dexente errez
Lehen bekereke, bele beltz txepel
Ez dek errezten ezer ez

Mikel

Itxoin!! Orain semearen erantzuna!!

Jode aita, utzi ba pakean
;ze arrano ta arraioa!

¿Ez dakizu ba, nire adinean
Sortzen den obsesioa?
Sexu gogoa piztutzen zaigu
Hau da nire desioa
Neska polit bat ikusi orduko
Zutitzen zait kanarioa

Patxo

Ze peste jefe errepelente
Erre ke erre berresten
Es ke ze txepel, ze ze... xelebre
Ez dek ezerrez hementxe (Buruaz)
Det epe dexente eferbeszente
Nere geneek lehertzen
Eme ederrek denek errezten
Ene “ejem” pene tentetzen.

10. HITZ JOSTALARIAK

Mikel bazter batean, txundituta.

Patxo

Ea, Mikel, zer duzu?

Mikel

Ba ez dela justoa!! Pelotoian Epo hartzen ez duen ziklista bakarra bezela sentitzen naiz. Gilipollas hutsa. “Bai oso sana da, ez da dopatzen...” Eta zertarako? Nork kontratatuko nau hurrengo denboraldirako? Ea, emaidazu piliula bat!

Patxo

Baina...

Mikel

Gu profesionalak gara, ezta? Ekarri pilula bat.

Patxo

Tori: Hitz jostalariak.

Mikel

Baina hori fuertegia da. Eskizofrenia probokatzen omen du.

Patxo

Bai zera, hau laborategian arratoiekin frogatuta dago, motel.

Mikel

Ba arratoiek hartzen badute, guk zergatik ez?

Pilula bana hartzen dute. Eragin nabarmena sortzen du.

Patxo

(Publikoari) Hitz jostalariak, euskeraz eta erderaz dakitenak dira. Esatebaterako, “barre”. Euskeraz, “barre” hitzak grazia dauka.

Mikel

Gastelaniaz... (eskobatzearen mimika) grazia gutxi dauka egoteak “barre que te barre”

Patxo

Beste bat: “beso”. Erederaz: “Necesito un beso”. Hori erromantikoa da. Baina euskeraz...

Mikelek esku bat mangaren azpian izkutatuz, eskean ibilteko keinua egiten du.

Mikel

“Beso bat behar dut”.

Patxo

Hori dramatikoa da.

Mikel

Eta beste batzuetan, gauza bera esan nahi dute. Esatebaterako, euskeraz: “Gaurko gazteak daude droga eta sexuaren menean”. Gastelaniaz: “Los jóvenes de hoy en día se drogan y se la mene...”

Patxo

Jarri dezagun egoera bat. Gaua da. Kanean, bi gazte bakarti, nor bere zauriak miazkatzen.

Patxo eta Mikel, nor bere aldetik, “Cucurrucucu” doinuaz.

Patxo

Gau hontan neska batek niri jarri dizkit bi adar

Mikel

Mi chica me ha plantado, es que las tías tiran a dar

Patxo

Ahora me siento solo, ella es mi vida, ella es mi sal

Mikel

Maitasuna ezin daiteke ez erosi eta ez sal

Biak batera

Ay ay ay ay ay.... Ramooooooooonaaaa!

Biak ixildu eta elkarri begiratzen diote. Hip-hop erritmoa hasten da.

Patxo.

¿Qué has dicho de Ramona? ¿Estás de coca tú?

Mikel.

Utzi bakean morroia, nire aurrean ez kokatu.

Patxo.

Ramona nire neska zen.

Mikel

Eh, relájate, practica Zen.

Patxo

Dime si tu chica es esta, tú

Mikel

Antza badauka, ezin dut ezeztatu

Agur, hor uzten zaitut, doi doi

Patxo

No tan deprisa, colega, que te doy.

Mikel

Me vas a dar? A ze dar dar.

Patxo

Tu, gripao, dame mi gorra.

Mikel.

Entzun dut ez nago gorra.

Tori zure txanoa eta joan zure kasa.

Patxo

Mi casa es la calle, la calle es mi casa.

Mikel

Que te la quemem, que te la quemem

Patxo.

Ez duzu kemen. Ez duzu kemen.

Yo que tú no osaba.

Mikel.

Ze beldurra, osaba!

Te daré hasta que duela

Patxo

Dio, kaka praketan duela

Ten cuidado no te de una

Mikel

¿Con un palo de agate Deuna?

Tú sólo tienes labia y cara

Patxo

Begira zelako ikara!

Biak

Anda y que te den!!

*(Musikak jarraitzen du. Baina melodia aldatzen da. Euren jarrera era aldatzen doa.
Adiskidetzera pixkanaka piskanaka)*

Patxo

Hara gauza zer den.

Somos de la misma aldea.

Mikel

Baina zelako aldea!

Patxo

Tíos como nosotros normalmente se apalean.

Mikel

Zeregin babua nire uste apalean.

Patxo

En una noche oscura a duelo se baten

Mikel

Eta gauza bera hurrengo baten.

Los tipos duros se zurran, no dudan

Patxo

Baina nik ez dut gogorik, hara zer dudan.

A mí esas riñas me hartan.

Mikel

Ni ere banago hartan.

Patxo

Que coño me ha pasado? He tenido una laguna.

Lehenago arrotza zinen eta orain berriz laguna?

Cantar contigo mola no lo puedo negar

Mikel

Etzaitez kursi jarri ez dut egin nahi negar.

Patxo

Andar de bronca da asco.

Mikel

Ni ere aspertzen naiz asko.

Patxo

Estamos como con Franco

Mikel

Sexu gutxi ta liskar franko.

Patxo

Gauero hainbat borroka, bederatzi edo hamar

Cuando lo que mola es a una piba amar.

Mikel

Horretan gu ere bagara gure zaharrak bezala

No te cortes, tío, si te gusta bésala.

Patxo

Hay una chica rubia como el maíz

Mikel

Horrelakoak ikusten dira maiz.

Patxo

Te lo cuento? o si no vete.

Mikel

Entzuteko daukat gogo bete.

Patxo

Pero antes de nada, vamos a mear

Mikel

¡A ze bizitza estu eta mehar!

Patxo

Eran las nueve cuando entro en el bar.

Han zeuden punki rokeroko eta abar

Pido una birra, la bebo a morro

baretzeko zenbait amorro

La chica me mira,

Mikel

su cigarro humea

Patxo

Nola dakizu zuk hori, umea?

Mikel

Como el musgo y el verdín

Neska guztiak dira berdín.

Patxo

Me acerco a ella, le digo “hola”

Mikel

irribarre egin du desteinuz edo hola.

Patxo.

Niregan pizten duzu hamaika sugar

Mikel

Oh, baby, crazy baby, you are my sugar

Patxo

Vámonos juntos a la orilla del mar, del mar

Mikel

Tabernako denak begira eta mar mar

Patxo

-“O si no, pasamos esta noche en un motel?”

Mikel

-Zer galdera txatxua da hori, motel?

Patxo

-Yo voy a las claras, en eso me baso
vasoari edalontzi eta bosqueari baso.

Mikel

Ya me puedo imaginar, aunque nada oí ni vi

Ramonak erantzun zuena hitz baten edo bi.

“Paso de ti, colega, que te den

Ez dakizu ospa egitea zer den?

No eres mal chico, pero te falta arte.”

Patxo

-“Kasu hortan agur, eta bihar arte”.

Eso me ha dicho, tronco, y se ha quedado tan ancha.

Mikel

Munduko Ramona guztiak badute antza.

Patxo

Por cierto, ¿hablamos de la misma Ramona?, porque tantas no había.

Mikel

Ze ajola du horrek. Orain hutsik dago bion habia.

Patxo

Bebamos hasta acabar ciegos como un topo.

Mikel

Bai, Ramona guztiengatik egin dezagun topo.

Patxo

Así es la diosa Fortuna, una te doy y dos te quito.

Biok

Mozkortu gaitezen... eta kito!

11. ARGOTAK

Patxo eta Mikel oraindik droga nahasketen efektuak nabaritzen dituzte.

Mikel

Uhauuu!!

Patxo

A ze bidaia!!

Eseri egiten dira, ezpainetan irribarre ezabaezina dutela. Une luze baten ondoren.

Mikel

Ze pilula zen?

Patxo

Eh?

Mikel

Hartu duguna, ze pilula zen?

Patxo

Ez dakit... Baina ona, eh?

Mikel

Bai!

Berriro irribarretsu une batez.

Biak batera

Hartuko dugu beste pilula bat...?

Barre egiten dute koinzidentziagatik.

Patxo

Ez. Pasatzen ari gara. Mirentxuk beti esaten dit egunen batean gaizki bukatuko dudala.

Mikel

Etxean lelo bera entzuten dut... Baina zer arraio, ez gaituzte ikusten. Gainera, hau ez da bizioa. Hau da ofizioa. Pasaidazu zerbait!

Pilula bana hartzen dute.

Mikel

Jode! Zer zen hori?

Patxok fraskoko etiketa irakurtzen du.

Patxo

Argotal.

Mikel

Ona!

Patxo

(Publikoari) Argotal, edo etorkizuneko euskera. Etorkizunean euskalkiak desagertuko dira. Euren tokian, argotak egongo dira: ofizio bakoitzekoak euskara desberdin batez egingo du. Jarri dezagun egoera bat. Etorkizuneko diskoteka bat. Bertan neska bat. Eta inguruan, mutil piloa, berarekin ligatu nahiean, bakoitza ofizio desberdin batekoa. Etorkizuna ez da hain desberdina izando. Nork egingo du neskarena?

Patxok hitz egin bitartean, Mikel bizkarrean du. Bueltatzen denean, Mikel neska jantzita dago. Musika entzuten hasten da.

Mikel

(Publiloari) “Brokerrera”, edo Burtsako brokerren euskalkia.

Patxo

¡Yahoo!

Mikel

Yahooo.

Patxo.

Ni Petro.

Mikel

...Nor?

Patxo

Petro.

Mikel

Nor?

Patxo

Bai, Petronor. Eta zu?

Mikel

Iber.

Patxo.

Ibex?

Mikel

Ez, Iber.

Patxo

Drola, Drola Iber!

Mikel

Drola.

Patxo.

(Kas botilatxoa eskeiniz) Bebe Kah?

Mikel

(Bere ardo basoa erakutsiz) Ez, Bebe Uva.

Patxo

(Porro bat egiteko proposatuz) Zer... Drogados y construcciones?

Mikel

Colgate?

Patxo

Vueling...

Mikel

Nike ez.

Patxo

(Eructo bat ateratzeko keinua) Google.

Mikel

ONO! Ta ba calera, eh!

Patxo

Gas Natural...

Mikel

(Bere kasa) Danone dira berdinak.

Patxo

Beno, Ikea?, zure Caixan edo nirean?

Mikel

(Bere kasa) Ze Tubacex.

Patxo.

Edo Texaco Alcampo.

Mikel

Alcampo Campsa

Patxo.

Motorolaz.

Mikel

Motorolaz Campofrío.

Patxo.

Gaur Repsol. Ze, Texaco?

Mikel

Nokia.

Patxo

Por Fagor...

Mikel

Canon!

Patxo

Zergatik ez?

Mikel

Mitxelin gehiegi. Tubos Reunidos

Patxo

Tu Maphre!

Mikel

Microsoft!

Patxo

HP!

Mikel

Corte Inglés!

Patxo badoa.

Mikel

Kotxera, edo kotxe zaleen euskalkia.

Patxo

Jeep!

Mikel

Jeep!

Patxo

Non dago Mercedes?

Mikel

Pandarekin.

Patxo

Su-zuki?

Mikel

Ez. Ni-ssan. Santana.

Patxo

Ah! Laguna!

Mikel

Laguna, bai.

Dantzán

Patxo

Ze Fiesta, eh? Zenbat Focus. (Dukados bat eskeiniz) Dukati bat?

Mikel

Kia! Ya Twingo.

Patxo

Orduan, zer, Volvo bat?

Mikel

Eh? Ez dizut ondo Audi!

Patxo

Volvo bat!!?? (Mikelek ezetz) Porsche?

Mikel

Clio bat zarelako eta...

Patxo

Ya maha! Ni Jaguar.

Mikel

Ja! Zu Mini.

Patxo

Alfa Romeo.

Mikel

Zelako Jeta! Golf!

Patxo

Mercedes...Benz Ford Fusion (heltzen dio)

Mikel

Eh, eh! Ez Lotus!

Patxo

Ez zara nirekin Fiat?

Mikel

Guzzi. To...Iota!

Patxo

Mazda huevos.

Patxo badoa.

Mikel

Koktelera, edo diskotekako euskalkia

Patxo.

Kai, piriña!

Mikel

Hei, neken!

Patxo

Bakardi zaude?

Mikel

Bailis.

Parxo

Ni ere Solares... (Piropo) Fontbella!

Mikel.

Ze Mahou...

Patxo.

(Piropo) Cariñena!

Mikel

(Bere kasa) Gordons!

Patxo

Zuri to. (Musu emanetz)

Mikel

Sobera, no?

Patxo

Pep-sí. Ni Radical. (Tontakeriak egiten hasten da)

Mikel

(Ironikoki) Zu beti Del Mono egiten!

Patxo

Ni Rioja. Swuep-ez?

Mikel

(Ironikoki) Ni ere Mondariz...

Patxo.

Orgasmo? Etxeko Zoko edo Eskilarapeko?

Mikel

Betelu. (Joateko keinua)

Patxo

Ni Veterano.

Mikel.

Ze Fanta! Rueda!

Patxo

Eta Magno.

Mikel

Mojito nirekin!

Patxo

Befeeter my friend...

Mikel

Aizu, ni Trina, eh?

Patxo

...Befeeter.

Mikel

(Ostia bat emanetz) Jota be!!

Patxo

Ah, Chinchon! (Badoa negarrez) San Migueeeel!

Mikel

Ez Chivas! Bombay!

Patxo badoa.

Mikel

Frutera, edo begetariano belarzaleen euskalkia.

Patxo

(Kanuto batekin) Ei, Chalota!

Mikel

Apio!

Patxo

Pistako Reineta zara!

Mikel.

Mahaspasa Porrúa.

Patxo

(Porroa eskeintzen dio) Tomate.

Mikel

Pómelo. (Espainetan ipintzen dio) Muxika ona, eh?

Patxo

Bai. (Diskotekero dantzatzuz) Maaaaaaaango!

Mikel

Ze Melokotoia duzun!

Patxo

Bai, kriston blanquilla daukat!

Mikel

Beitu, Pepino! Pepe! (Aurrean dagoen Pepiño-ri agur esanez) Hori bai Boniato.

Patxo

Kendu baba.

Mikel

Eta ze broculín! Sa-garra ondo... Zi-za!

Patxo

Nik ere badaukat miembrillo on bat.

Mikel

(Pepinori) Ze, Bar Atxuri? Onddo, onddo. Beno, ni Rabanoa pepinorekin.

Patxo

Ze endibia! Vaina... ni?

Mikel

Gaur, Pepino. Banan banana.

Patxo

Onddo, onddo. Orduan, bihar?

Mikel

Bihat niskalo... Baina zuk Boletus gutxi daukazu.

Patxo

Aguakate didazu festa.

Mikel

Agur, Perretxiko.

Patxo

Jode... Kalabazak.

Patxo badoa

Mikel

Euskaltzainera, edo euskaltzainen euskalkia

Patxo

Barkaiezaidazu, otoi... Nik zu, zazaguzkit?

Mikel

Ez dut uste zuk ni nazaguzunik. Nik behintzat zu ez zazaguzkit.

Patxo

Agian zure izena bazeniosta...

Mikel

Nire izena baniotsu zuk zenekike.

Patxo

Nekike, bai.

Mikel

Eta anonimatoa lihoake.

Patxo

Lihoake, bai. Atsegin zatzaizkit.

Mikel

Atsegin natzaizu, alegia?

Patxo

Zure etxera narraikizuke?

Mikel

Ez, ezin nintzakezu etxera jarrai.

Patxo

Bale. Orduan nire etxera neramakizuke?

Mikel

Ez, ezin nindukezu zure etxera eraman.

Patxo

Inguruan nabilkizuke?

Mikel

Ez, ezin zenkizkidan inguruan ibili.

Patxo

Edariren bat nekarkizuke?

Mikel

Ez, ezin zeniezdake edaririk ekar.

Patxo

Ze ondo, biok kontu kontari, eh? Non geundeke hobe?

Mikel

Ezin niezazuke esan.

Patxo

Ba nik zu zazaguzkit.

Mikel

Y dale...

Patxo

Agian non bizi zaren bazeniosta...

Mikel

Biziki poztuko nintzateke zu nire ondotik baziondoazkit!!

Patxo

Nola?

Mikel

Joateko por culo hartzera, ostia!

Patxo

Espresamolde txit adierazgarria!! Errepika zeniezdake, arren?

Mikel

Ala por ahí! Pesao!

Mikel badoa.

12. DESPEDIDIE

Mobil bat entzuten da. Mikelek daunkan boltsoan dago.

Patxo

Mobila piztuta daukazu?

Mikel

Ahaztu zait...

Patxo

Itzali, ba!

Mikel

Bai...

Poltsotik ateratzen du.

Mikel

Pello!

Patxo

Zer?

Mikel

Pello da... Nire Pello. (Botoiari sakatzen dio) Pello, non zaude?

Pello (off)

Non nagoen?? Ba orain arte hor barruan, erridikuloa nola egiten duzuen ikusten!! Baina ikusi duzue zelako axurra duzuen?? Kagoendiez!! Gero niri esango didazue!! Eta ez kontatu hortik nire bizitza, jode!! Eta kendu peluka hori nazkagarri hori!! Agur!! Ah! Itxaron, norbaitek hitz egin nahi du Patxorekin.

Patxok bere peluka kentzen du.

Mirentxu (off)

Patxo...

Patxo

Mirentxu??

Mirentxu (off)

Patxo? A ze lotsa pasatu dudan! Mesedez, ganora pixka bat geratzen bazaizu, joan klinika batera desintoxikatzerara. Ezagutu zintudanean magisterio ikasten ari zinen. Hain zinen jatorra eta sana! Agur, zaindu zaituzte! Ah, eta nik ez zaitut utzi kanario bategatik. Nafarra da, nafarra!

Patxok mobila eskegitzen du. Ixilunea. Patxo pilula baten bila ari da, baina bukatu zaizkio.

Mikel

Patxo, ikusi duzu zelako atxurra duzun? Eta kendu peluka nazkagarri hori!!

Patxok bere peluka kentzen du.

Mikel

Pello txikia zenean bere heroia nintzen.

Patxo

Mirentxuk duela gutxi Osakidetzako oposaketara presentatzeko esan zidan... Eta nik barre egin nion... “Ni artista bat naiz!!” Zergatik ez nion kasurik egin?

Mikel

Hara nola bukatu dugun, teatroa aukeratzeagatik!

Patxo

Teatroa euskaraz, gainera... Nola ez gara ba egongo konplemento bitaminikoekin engantxatuta?

Musika hasten da.

Patxo

Jaun andreak, gaur eskeini dizuegu
Espektakulo lamentagarria
Lan hau da gure familiaren ustez
Pringao bat izateko garantia
Euskaraz antzerkia egitea da
Desgrazia ta nahigabeen iturria
Bagoaz ziztu biziz preparatzera
Ostiakidetzako konbokatoria.

Mikel

Funtzionari-o lanak izan behar du
Esperientzia gogoangarria
Ohetik sei t´erdietan jeikitzea da
Heroizidade eta balentria
Betirako lan formal ta segurua
Bizitzaren loterian saria
Ez zaigu burutik pasa prestatzea
Ez dok Hiru-n hurrengo Komedia

Biok batera.

Funtzionario lanak izan behar du
Espektakulo lamentagarria

Ohetik sei t´erdietan jeikitzea da
Pringao bat izateko garantia

Betirako lan formal ta segurua
Desgrazia ta nahigabeen iturria

Ez zaigu burutik pasa prestatzea
Ostiakidetzako konbokatoria

Jaun andreak, gaur eskeini dizuegu
Esperientzia gogoangarria

Lan hau da gure familiaren ustez
Heroizidade eta balentria

Euskaraz antzerkia egitea da

Bizitzaren loterian saria

Bagoaz ziztu biziz preparatzera
Ez dok Hiru-n hurrengo Komedia